

MENDIALDEA ESKUALDEA

AKTIBAZIO SOZIOEKONOMIKORAKO


PLANA ETA MIMUKAI PROIEKTUA



2025 Memoria

1. Sarrera

Cederna-Garalur Nafarroako Mendialdean lan egiten duen tokiko ekintza-talde bat da (GAL). 1991an sortu zen eta Nafarroako iparraldean kokatutako 9 eskualdetan jarduten du. Horien artean, Larraun-Leitzalde eskualdea aurkitzen da, Mendialdea izenez ezaguna. 10 udalerri osatzen dute: Areso, Araitz, Arano, Basaburua, Betelu, Goizueta, Imotz, Larraun, Leitza y Lekunberri (4/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Toki Administrazioak onartua).



Erakundeak tokiko eta eskualdeko ekintzei laguntzea du helburu. Ekintza hauek landa eremuko bizi kalitatea hobetzea, zerbitzu publiko eta pribatuen sarea indartzea eta biztanleak lurraldean geratu eta bertara erakartzea bilatzen dute. Horretarako, erakundea sortu zenetik garapen agente bat aritu da Mendialdean lanean eta, pixkanaka, lantaldea handituz joan da. 2019an, “Mendialdea Elikadura” proiektua martxan jartzearekin batera, Elikadura Dinamizatzailer bat batu zen taldera eta izandako emaitzak ikusita, 2022 beste urrats bat eman da Mendiko Aktibazio Sozioekonomikorako Planaren garapenean, Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikorako Departamentuak finantzatuta.


Bestalde, Plazaola Kontsortzio Turistikoak (tokiko erakundeek eta enpresa turistikoek osatua) kudeatu eta dinamizatzen du turismo arloa eskualdean. 2022an planaren barruan sartu den hausnarketa prozesu bat gauzatu zuten.

1.1 Mendialdea eskualdeko testuinguru sozioekonomikoa

1.1.1 Biztanleria


Mendialdea osatzen duten 10 udalerriek 8.887 biztanle izan zituzten 2025ean (2021ean baino 98 biztanle gehiago). Hala ere, taulan ikus daitekeen moduan, biztanle gehienak Leitza eta Lekunberrin biltzen dira. Bi udalerrien artean, eskualdeko biztanleria osoaren erdia baino gehiago osatzen dute (%53,5) eta Leitza da, 3.025 biztanlerekin, biztanle gehien dituen udalerria.

Biztanle gutxien dituzten udalerriak Arano eta Areso dira, baina garrantzitsua da azpimarratzea 4 udalerri (Araitz, Basaburua, Imotz eta Larraun) konposatuak direla, hau da, kontzejuz osatutako udalak direla, eta oso herri txikiak dituztela.



Azken 25 urteetan, eskualdeko biztanleriak gora egin du, 2000 eta 2025 bitartean %7,2 inguruko hazkundearekin. Hala ere, eskualdeko bilakaera demografikoak argi erakusten ditu udalerrien arteko aldeak. Aipatzekoak dira hazkunde sendoa izan duten udalerriak, hala nola Lekunberri, azken 25 urteetan biztanleria bikoiztu duena. Beste batzuek, aldiz, hazkunde arinagoa edo nolabaiteko egonkortasuna erakusten dute, Leitza edo Beteluk adibidez. Badira, halaber, jaitsiera progresiboa erakusten duten udalerriak ere, nabarmenenak, Goizueta, Larraun edo Araitz. Larraunen kasuan, jaitsiera horrek lotura estua du Lekunberriko hazkundearekin; izan ere, udalerri batetik bestera migrazioak gertatu dira, eta horrek Larraungo biztanleriaren galera dakar.

Biztanleria-egiturari dagokionez, 50 eta 54 urte bitarteko tartean biltzen dira biztanle gehien. Piramidea asko estutzen da adin-tarte gazteenetan, eta horrek eskualdean ordezkio belaunaldirik ez egotea aurreikusten du. Bereziki nabarmentzekoa da 25-29 urteko biztanleria oso txikia dela, lan-munduan sartzeko adinarekin bat datorrena. Guzti hau landa-eremuetan ematen diren ohiko dinamikekin bat dator. Mendialdeak erronka demografiko garrantzitsu bati egin behar dio aurre: zahartze tasa altua eta gazte kopuruaren beherakada.




45 urtetik gorako adin-tarteetan gizonrzkok nagusitzen dira, eta horrek Mendialdeko biztanleria maskulinizatzeko joera dagoela adierazten du. Mendialdeko maskulinitate-tasa % 110,7koa izan zen 2025ean, eta horrek esan nahi du 111 gizon inguru daudela 100 emakumeko. Datu horrek erakusten du gizonen presentzia handiagoa dutela eskualde osoan, udalerrien artean alde nabarmenak egon arren. Kontuan hartuta Nafarroako maskulinizazio-tasa %98,21ekoa dela, hau da, 98 gizon 100 emakumeko, eskualdeko maskulinizazio-maila altua da.

Udalerri maskulinizatuenak Arano (%129,8), Basaburua (%129,4) eta Imotz (%122,1) dira, 1:1 baino proportzio nabarmen handiagoarekin. Aitzitik, tamaina handiagoko udalerriek, hala nola Leitzak (%104,5) eta Lekunberri (%102,9), proportzio askoz orekatuagoa dute, gizonen eta emakumeen arteko parekotasunaren antzekoa. Hala ere, udalerri guztiek gaintitzen dute Nafarroako maskulinizazio-tasa.

1.1.2 Ekonomia

Eskualdeko enpresa-ehunaren datuak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergatik (JEZ) atera dira. Cederna-Garalurrek akordio bat du Mendialdeko udalekin, eta akordio horri esker informazio hori ematen digute, Mimukai Proiektuaren eta Mendialdea Aktibatze Planaren esparruan erabiltzeko. Datu horietan oinarrituta, eskualdeko egoera enpresariala eta, beraz, ekonomikoa ezagutu ahal izan da.

Datuak sistema informatiko baten bidez landu dira (Power BI), eta horri esker hurrengo infografiatar iritsi ahal izan gara. Aipatzekoa da, EIJtik ateratako datuekin lan egitean eta enpresa bakoitza jarduera ekonomiko batean baino gehiagotan alta emanda egon daitekeenez, datuen tratamendua egitea zaila dela eta akatsen bat egon daitekeela. Dena dela, datu hauek eskualdeko errealitate ekonomikoaren isla dira, bai Mendialdea osoaren datu orokorrak, bai azken eranskinean udalerriak aurkezten direnak.




Eskualdean 752 enpresa daude, 1.023 jarduera ekonomiko desberdin sortzen dituztenak. Horrek esan nahi du enpresa batzuek sektore askotan lan egiten dutela edo hainbat negozio-gune dituztela.


Autonomoaren figura nagusitzen da enpresa guztien % 54,26rekin (408), eta ondoren erantzukizun mugatuko sozietatea dago (% 24,73). Beraz, mikroenpresek eta banakako proiektuek pisu handia dute. Norberaren konturako langileen artean genero-arrakala nabarmena dago. %59,35 gizonak dira (257) eta %40,65 emakumeak (176).

Sektoreen grafikoak zerbitzuetan eta merkataritzan oinarritutako ekonomia nagusitzen dela erakusten du. Merkataritza, Sukaldaritza eta Ostalaritzak sektore eragile gisa jarduten du, jardueraren ia %30 metatuz (257). "Beste zerbitzuak" (% 13,38) eta "Eraikuntza" (% 12,11) dira eskualdean ordezkari handiena duten hurrengo jarduerak.

Aztertutako enpresa-sareak hiru azpisektore nagusi ditu: Eraikuntza, % 11,13rekin (105 erregistro); Lurreko Garraioen sektorea, % 9,76rekin; eta Merkataritza industrialaren eta Elikadura Zerbitzuaren arteko berdinketa, % 6,79rekin. Ehunaren gainerakoan, elikagaien merkataritza eta ostalua dira nagusi. Horrez gain, dibertsifikazio handia islatzen duten azpisektore minoritario ugartan ere ikus daitezke.



Udalerrrika aztertuz gero, enpresa-sarea Leitza (211) eta Lekunberrin (186) zentralizatuta dago, bien artean Mendialdeako jardueren erdia baino gehiago batuz (% 51,49). Bigarren taldea Basaburuak, Larraunek eta Araitzek osatzen dute, eta proportzio esanguratsua mantentzen dute, %7tik %10era bitarteko tartean. Gainerako udalerrietan, jarduera ekonomikoa txikiagoa da, gutxiengoa Aranon izanik (% 1,43).



1.2 Aktibazio Sozioekonomikorako Plana eta Mimukai proiektua

Plana Mendialdearen garapen sozioekonomikorako tresna da, eta, horren bidez, hainbat proiektu artikulatu dira lurraldearen hurrengo urteetako ezaugarri eta erronkei erantzuteko. Plan hau, dokumentu estrategikoa ez ezik, eskualdeko eragile sozioekonomikoen arteko lankidetzaz-esparrua ere bada. Bertan, eskualdea aktibatze eta jarduera ekonomikoak indartzeko baliabideak integratzen dira. Plana 2023-2025 eperako zehaztu zen, baina 2028ra arte luzatu da. Plana bat dator S4rekin, Nafarroako Gobernuak diseinatutako espezializazio adimenduneko estrategiarekin.

Bestalde, Mimukai proiektua, Leitza kokatzen den garapen-zentroa da eta coworking gunea, bulegoak, bilera-gelak eta prestakuntzak... eskaintzen ditu. Zeharkako proiektu bat da, sektore estrategikoei laguntzen diena, eta, gainera, lurraldearen beharrei modu kooperatiboan erantzutea bilatzen du, gizarte-ekonomian oinarrituta. Bertan, enpresei laguntzeko jarduerak, ekintzailtzaren sustapena, enplegurako prestakuntza eta eskualdeko ekosistema sozioekonomikoaren topagune fisikoa garatzen dira. Esan dezakegu Mimukai tokiko beharrei eta arazoei erantzuteko ideiak sortzen diren laborategia dela. Ekonomia Aktibatze Planaren barruan tresna praktiko gisa funtzionatzen du.

1.2.1 Planaren helburuak

Helburuek planaren norabidea eta jarduera-ildoak zehazten dituzte, eta lurraldearen garapen jasagarri eta kohesionaturako tresna gisa ulertzen dira.

HELBURU OROKORRAK	
ESKUALDEKO GARAPEN SOZIOEKONOMIKO ADIMENDUA ETA JASANGARRIA SUSTATZEA	
HELBURU ZEHATZAK	DESKRIBAPENA

Eskualdeko ekoizpen-sarea indartzea eta dinamizatzea	Tokiko enpresen lehiakortasuna eta sektoreen arteko sinergiak sustatzea
Ekintzailatza eta kalitatezko enplegua bultzatzea	Lan-aukera berriak sortzea, gazteak eta emakumeak protagonista izan daitezen
Lankidetzarako aliantza publiko-pribatuak sustatzea	Sektore eta eragile desberdinen arteko lankidetzaredu berriak garatzea
Eskualde-ikuspegia eta -kohesioa hobetzea	Eskualdearen integrazioa eta kohesioa hobetzea, tokiko erakundeen, produkzio-sektorearen, hezkuntza-eragileen eta herritarren artean partaidetzazko gobernantza-eredu bat garatuz
ZEHARKAKO ARDATZAK	
Genero ikuspegia	Emakumeen parte-hartzea eta lidergoa sustatzea, eta genero-arrakala murriztea.
Digitalizazioa	Produktibitatearen eraginkortasuna hobetzea: enpresen kudeaketa eta prozesuen automatizazioa, teknologia aurreratueta oinarritutako soluzio digitalen garapena eta ezarpena...
Jasangarritasuna	Ekoizpen-sistema iraunkorrak eta baliabideen erabilera eraginkorra sustatzea, ingurumen-inpaktua murriztuz eta bioekonomian eta zirkulartasunean oinarritutako negozio-eredu berriak ezarri.

1.2.2 Sektore ekonomikoak

Aurreko helburuetan oinarrituta eta egungo erronkei eta lurraldearen garapen aukerari erantzuteko, bost sektore ekonomiko estrategiko identifikatu ziren eta sektore ekonomiko bakoitzerako honako helburuak garatu dira:

SEKTOREA	HELBURU NAGUSIA	HELBURU ZEHATZAK
INDUSTRIA	1. Tokiko eta kalitateko enplegua bultzatzea	• Prestakuntza eta orientazioa • Ekintzailatza sustatzea • Industrialdeak eta jarduera ekonomikoetarako azpiegiturak sustatzea
	2. Enpresen lehiakortasuna hobetzea	• Enpresa-jarduera erraztea • Energia-eraginkortasuna eta ekonomia zirkularra bultzatzea • Sinergiak sortzea eta aprobetxatzea
ENERGIA BERDEA	1. Energia berdeko eta ekintzailatzako proiektu berriak bultzatzea	• Energia berdea eta ekintzailatza sustatzea baliabide endogenoekin • Ekonomia zirkularra bultzatzea • Sektoreko giza baliabideen, baliabide ekonomikoaren eta azpiegituren gaitasuna indartzea
	2. Aurrezpen eta efizientzia energetikoa hobetzea	• Energia-komunitateak eta eskari-agregatzaileak bultzatzea • Sentsibilizazioa, kontzientziazioa eta aholkularitza

ELIKADURA JASANGARRIA	1. Nekazaritzako elikagaien sektorearen lehiakortasuna eta errentagarritasuna hobetzea	• Balio-katean integratzea. • Baliabideen aprobetxamendua sustatzea. • Enpresetan ekintzailatza eta berrikuntza bultzatzea. • Prestakuntza eta aholkularitza
	2. Ekoizpen ekologikoa eta kontsumo-ereduaren aldaketa bultzatzea	• Sektorearen sentsibilizazioa sustatzea. • Lurraldeari lotutako ekoizpena sustatzea
MERKATARITZA ETA OSTALARITZA	1. Lehiakortasuna hobetzea	• Txostenak eta azterlanak egitea. • Ekintzailatza, lehiakortasuna eta prestakuntza
	2. Merkaturatzea bultzatzea	• Eskualdeko topaketa dinamizatuia sustatzea. • Sektoreen arteko lankidetzat sustatzea. • Sektorerako komunikazio-estrategia bat sortzea
TURISMO JASANGARRIA	1. Eskualdeko turismoa sustatzea	• Turismo-produktuaren garapena. • Komunikazioa. • Prestakuntza eta berrikuntza sustatzea. • Ekintzailatza sustatzea.
	2. Eskualde-ikuspegia sustatzea	• Sareko lana sustatzea. • Jasangarritasuna sustatzea.

1.3 Gobernantza eta behatoki sozioekonomikoko kideak

1.3.1 Gobernantza

Mendialdeako Aktibazio Sozioekonomikorako Planaren garapena eta jarraipena bermatzeko, gobernantza-eredu egituratu bat ezartzen da. Eredu horrek lehentasuna ematen die parte-hartzeari, jarraitutasunari eta sektoreen arteko koordinazioari. Taula honetan egitura ikus daiteke:

ORGANOAK ETA OSAERA	FUNTZIOAK	BILEREN MAIZTASUNA
Behatoki sozioekonomikoa Eskualdeko eragile garrantzitsuak/Lurraldez gaundiko eragile esanguratsuak	Planaren gobernantza orokorra. Funtzio estrategikoa du: Planaren helburuen jarraipena egitea, ekintza politikoak eta teknikoak ikuspegi partekatu batetik bideratzeko.	Gutxienez urtean behin eta beharrezkoa denean.
Talde eragilea Eskualdeko 10 udalak / Plazaola Kontsorzio	Cederna Garalurrek dinamizatuia, talde honek prozesuaren jarraipena egiten du	Hilean behin edo beharrezkotzat jotzen

Turistikoa/ Cederna Garalur erakundea	eguneroko erronkei eta proposamenei erantzuteko.	denean.
Sektorekako foroak Elikadura mahaia	Eskualdeko sektore edo gai zehatzei buruzko eztabaidarako eta proposamenak egiteko guneak dira. Foro horiek eragile publiko eta pribatuen parte-hartzea sustatzen dute, eta ezagutza eta tokiko esperientzia baliatzen dituzte Plana aberasteko.	Gutxienez bi aldiz urtean edo beharrezkotzat jotzen denean.
Talde dinamizatzailerak* Cederna Garalur erakundea	Planaren diseinua, dinamizazioa eta kudeaketa koordinatzeko eragile nagusia. Prozesuaren zuzendaritza teknikoaren eta sozialaren arduraduna.	Cederna Garalur lantaldea etengabe koordinazioa.

* *Talde dinamizatzaileraren oharra:*

- Plazaola Partzuergo Turistikoa arduratzen da sektore turistikoa jasotako helburuak eta ekintzak dinamizatzeaz eta kudeatzeaz.
- Cederna Garalur lantaldean Mendialdean hainbat esparrutan lanean ari diren teknikari guztiak sartzen dira.
- Bi erakundeetako lantaldeak lan egiten duten proiektuetan koordinatzen dira.

1.3.2 Behatoki sozioekonomikoko kideak

UDALAK	Araitz
	Arano
	Areso
	Basaburua
	Beteluko udala
	Goizueta
	Imotz
	Larraungo udala
	Leitza
	Lekunberri
ESKUALDEKO ERAGILEAK	Leitzeko K.T
	Araxes Garaiko Mankomunitatea
	Habelarte
	Plazaola Partzuergoa
	Kaxkabeltza
	ASLANA
	Goiener
	Euskara Mankomunitatea
	Mendialdea Mankomunitatea
	Berdintasun zerbitzua
	Amazabal BHI
	Zaindu Elkartea
	Pauma
BESTELAKOAK	INTIA
	Orekan
	SNE-NL

2. Aktibazio Plana

Jarraian Aktibazio Planean lantzen diren esparruetako bakoitzean egindako proiektuak garatzen dira, baita Mimukai proiektua eta eskualdean eragina duten Cederna Garalurrek bultzatutako beste proiektu batzuk ere.

2.1 Industria

Industria-sektoreak Lekunberrin eta Leitzan bereziki garatuta dago, eta Aranon, Areson, Betelun, Basaburuan eta Goizuetan ere badu presentzia.

2025ean, Mendialdea 2025-2026rako koordinatzeko proiektua jarri da martxan, eta horrek SODENarekin eta Nafarroako Gobernuarekin honako eremu hauetan koordinatzea dakar.

1. Helburua: Tokiko eta kalitatezko enplegua bultzatzea

Eskualdeko enplegua eta bere kalitatea hobetzeko asmoz, hainbat ekintza garatu dira:

Mendialdeko industrialdeak bultzatzea: Sodenarekin lankidetzan, eskualdeko industrialdeetako azpiegituren arazoak identifikatzea da helburua, eta, gainera, Indusland plataformara enpresa berriak erakartzeko helburuarekin, eskualdeko lurzoruei eta pabiloiei buruzko informazioa igo da. (<https://investinnavarra.com>).

Ekonomia zirkularren sustapena: Alde batetik, ekonomia zirkularra sustatzeko lanarekin jarraitu da Mendialdeko enpresa industrialetan, Navarra Zirkularren laguntzarekin (<https://navarrazirkular.es>). Bestetik, Mendialdeak ECIV (European Circular Innovation Valley) sarean parte hartzen du, hau eskualdea ekonomia zirkularreko erreferentziazko ekimen europarrekin lotzeko apustua delarik. Sare horrek garapen-eredu iraunkor eta berritzaileekin konprometitutako lurraldeak biltzen ditu, eta ezagutzaren transferentzia, sareko lana eta ekonomia zirkularrako baterako trantsizioa bultzatuko duten proiektu pilotuak sustatzea du helburu.

2. Helburua: Enpresen lehiakortasuna hobetzea

Mendialdea eskualdean kokatutako industrien lehiakortasuna hobetzeko, bisitak eta bilerak egin dira enpresekin, haien erronkak, gaitasunak eta behar zehatzak jasotzeko eta enpresekin duten harremana sendotzeko. Nafar Lansarek Ilundain Fundazioaren bitartez eskaintzen duen enpresa prospekzio zerbitzuarekin elkarlanean garatutako ekimena da.

Urtean zehar komunikazioak bidali zaizkie eskualdeko enpresei, laguntzei, prestakuntzei eta praktiketarako aukerei buruzko informazioarekin. Azken horri dagokionez, enpresen eta ikasleen arteko praktika-loturak bultzatu dira, tokiko talentua industrian integratzeko. Horretarako, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta eskualdeko enpresak harremanetan jarri ditugu, eta enpresei unibertsitatetik iristen zaizkigun eskaerak jakinarazten dizkiegu.

Eskualdeko enpresekin lan egiteko modu hori etengabeko lana da eta izaten jarraituko du, proiektuak, sinergiak eta ekintzak sakonduz eta definituz.

2.2 Energia berdea

Lurraldeko baliabide endogenoak aprobetxatu nahi dira jasangarritasun energetikorako bidean. Horretarako Eraldaketa Komunitariorako Bulegoekin (OTC) koordinatuta ari gara lanean, Mendialdean dauden energia-komunitateen bidez energia berdearen ekoizpena eta energia-eraginkortasuna bultzatzeko (<https://otcnavarra.es>). Hain zuzen ere, Sakana-Larraun-Leitzaldea haztegiak eskualdeko energia komunitateak artatzen eta dinamizatzen ditu. Zerbitzu honek helburu hauek ditu:



1. Helburua: Energia berdeko eta ekintzailetzako proiektu berriak bultzatzea

2. Helburua: Aurrezpena eta efizientzia energetikoa hobetzea

Azken urteotan, eskualdeko herri ezberdinetan hainbat Komunitate Energetiko sortu dira. Komunitate horiek biztanleriatik bertatik sortzen dira, jarraian zehazten diren energia-ekoizpeneko proiektu berriak bultzatzeko eta energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko etengabe lan egiteko interesegatik:

Leitza Komunitate Energetikoa	Autokontsumorako bigarren instalazio kolektibo bat egin da lehenengoaren emaitza positiboak ikusi ondoren. Instalazio berri hau Mimukaiko bulegoetan dago, eta aurreikusitako kide guztiek eta eraikinaren estalkiaren jabeek parte hartzen dute.
Lekunberri ON Komunitate Energetikoa	Merkataritza Ganberak eta Edinorrek bultzatutako giltza-ereduko energia-komunitate industrial da. Ez du jarduerarik egin 2025ean.
Ixkier Komunitate Energetikoa	Aitzindaria izan da Nafarroan, bertako kideentzako egurra banatzeko proiektu bat ezarri baitu. Autokontsumorako instalazio fotovoltaiko bat ere egin du, udalak kudeatutako ibilgailu elektrikoak kargatzeko gune bat duena. Eguzki-energia erabiliz iturburuetatik ura ponpatzeko proiektu bat idatzi du, 2026rako aurreikusita dagoena. Gainera, Ixkierrek biomasaren erabileran duen esperientzia partekatu du eta energia-komunitateen arteko sinergiak sustatzeko ekitaldietan parte hartu du. OTCK laguntza fiskala eman dio komunitateari.
Ostots Komunitate Energetikoa	Komunitateak ez zuen laguntzarik lortu iaz, Araitzen eta Austerion bi instalazio fotovoltaiko egiteko nahikoa puntuazio ez zuelako. Hala ere, aurtengo deialdian aurkeztuko da, eta gehieneko puntuazioa lortzea espero da. OTCK faktura energetikoari buruzko tailer bat antolatuko du, jendeari irekia, eta laguntza teknikoa eta fiskala eskatzea gomendatzen da. Bi instalazioak martxan jartzea aurreikusten da, aurtun 21 parte-hartzaile izango dituen.
Azkarateko Komunitate Energetikoa	Estatuan erregistratutako kooperatiba bat da, eta 2025eko energia-komunitateentzako laguntzen deialdira aurkeztu zen, 3., 4. eta 5. neurriez baliatuta. Bere proiektuak 20 kW-ko mini eoliko bat instalatzea barne hartzen du, ingurumen-inpaktua eta zarata minimizatzeko diseinaturik. Harremanetan jartzen saiatu arren, ez da komunitatearekin bilerarik lortu, baina 2026an komunikazioa hobetzea espero da.

GOIZUKOOP S. COOP	Goizukoop kooperatibak estatutuak aldatu zituen Energia Komunitate bihurtzeko. Bere lehen urratsa Goiekhi proiektua izan zen, udal frontoiaren estalkian (Udalak utzitakoa) jarritako panel fotovoltaikoetan oinarritutako autokontsumorako sistema partekatua. Instalazioa arrakasta handiz osatu zen 2025ean. Komunitatea bigarren fase batean ari da lanean 2026rako.
Mendialdeako beste udalerri batzuk	Goieneko kooperatibak emandako hitzaldien bidez energia-komunitateak sortzeko interesa izan duten udalerrietan, harremanetarako lan proaktiboa egiten da, dauden beharrak ezagutzeko. Ez da erantzunik jaso.

2.3 Elikadura jasagarria

Mendialdean nekazaritza eta elikadura funtsezkoak dira, bai garapen ekonomikoan, bai nortasun kulturean. Aitzitik, 2019. urtean egindako diagnostikoak oso egoera kezkarria jaso zuen: oso ekoizpen txikia dugu eskualdean, eta gero eta txikiagoa izango da, eta elikadura sistema eskualdetik deslotuta dago. Horren aurrean, *Elikadura Mendialdea* proiektua martxan jarri zen eta estrategikotzat hartu da. Horregatik Aktibazio Sozioekonomikoko Planean baitan kokatua dago. Proiektu horren helburua tokiko elikadura-sistema indartsu, iraunkor eta kohesionatua eraikitzea da, ekoizleak, kontsumitzaileak eta tokiko erakundeak sarean jarri eta lurralde-ikuspegi batetik lan eginez. Tokiko elikadura sistema eraikitzeak sistema horien arloak eta dimentsioak lotzea eta koordinatzea dakar, maila lokalean: ekoizpena, eraldaketa, banaketa, merkaturatzea eta konsumoa. Edonola, elikadura testuinguruak ere garrantzia du: araudiak eta elikadura-ohiturak. Arlo horiek guztiak aktibatzea eta konektatzea da proiektu honen helburua.

Tokiko elikadura-sistemen inguruko lanak eta politikak nahiko berriak direla kontuan hartuta, funtsezkoa da horien inguruko sareak sortzea eta indartzea, eta etengabeko prestakuntzan egotea. Bestalde, tokiko elikadura-sistemak eraikitzeke, askotariko eragileek parte hartu behar dute, hau da, gobernantza argi eta funtzionalak. Horregatik, gobernantza-tresna nagusia Elikadura Mahaia da (udalek, kontsumo-taldeak, elkarteak... parte hartzen dute mahai horretan). Bertan *Elikadura Mendialdea* proiektuaren lan-ildoak zehazten dira.

1. Helburua: Nekazaritzako elikagaien lehiakortasuna eta errentagarritasuna hobetzea

Mendialdeko nekazaritzako elikagaien sektorearen lehiakortasuna eta errentagarritasuna hobetzeko, hainbat ekintza egin dira ezarritako helburua betetzen laguntzeko:

Azoka ibiltaria: 2025. urtean Mendialdeko Azoka Ibiltariaren 6. edizioa egin da. Urte hasieran, aurreko edizioaren balorazioa egin zen eta bertan zenbait aldaketa gauzatzea erabaki zen. Gauzak horrela, lehenago urtean 9 azoka egiten baziren, 2025ean 5 azoka egin dira. Asmoa da azoken antolakuntzan herriak txandakatzea eta herri bakoitzean bi urtetik behin azoka egitea. 2025ean bost azoka hauek egin dira:

- Betelum, apirilaren 13an
- Gorritin (Larraun), maiatzaren 18an, Latxa Arrazaren Enkante Nazionalarekin batera
- Goizuetan, ekainaren 1ean, Emakume Artzainen Egunarekin bat eginez
- Leitzan, irailaren 14an, Talo Egunarekin bat eginez
- Jaunsaratsen (Basaburua), azaroaren 2an, Gaztaina Azokarekin batera

Ekimen honekin eskualdeko produktuei ikusgarritasuna eman nahi zaie eta ekoizleei salmentarako gune bat eskaini. Orokorrean, balorazio positiboa egiten da. Eta, ekimena gauzatu ahal izateko, Plazaola Turismo Partzuergoa eta Cederna Garalurrek koordinazio lanak egiten dituzte, eta antolakuntzan udalak, Habelarte eta Leitzeko eta Araizko Zaporeak kontsumo taldeek parte hartzen dute.



Formakuntza: nekazaritza sektorea bultzatzeari begira formakuntza funtzeskoa da. Horretarako, azken urteotan INTIArekin batera lan egin da eskualdera formakuntzak antolatzeko. Arrazoi ezberdinak direla medio, 2025ean ezin izan da formakuntzarik antolatu. Hala ere, formakuntza horiengan interesa dutenekin lan egin izan da eskualdeko beharrak identifikatzeko eta horien arabera 2026rako formakuntzak antolatzen hasteko.

Kalaska: eraldaketa zentroak ezinbestekoak dira Tokiko Elikadura Sistemak eratzeke eta indartzeko. Arlo horretan, eskualdean gabezi nabarmena dago. Kalaska hiltegia eta despieze-gelaren irekierak aukera berria ireki du Menidaldean bertako haragia salgarri egon ahal izateko. Hori bultzatzeari begira, Kalaska proiektua eta bere fontzionamendua ezagutarazteko abeltzainei zuzendutako 3 hitzaldi antolatu dira Imotz, Larraun eta Leitzan.

2. Helburua: Ekoizpen ekologikoa eta kontsumo-ereduaren aldaketak bultzatzea

Ekoizpen ekologikoa eta kontsumo-ereduaren aldaketa bultzatu ahal izateko, bi alderdi nagusi landu behar dira. Alde batetik, komunitatea sektorearekiko sentsibilizatzea bultzatu nahi da, eta bestetik, tokiko ekoizpena bultzatu nahi da. Horretarako, ekintza hauek egin dira:

Sektorearekiko sentsibilizazioa bultzatzea: Elikadura osasungarri eta jasangarriaren garrantziaz sentsibilizatzeko eta sektorea gizartera hurbiltzeko, hainbat ekimen bultzatu dira, edo beste eragile batzuek bultzatutako beste batzuetan parte hartu da.

- Eskola Foroa eta eskoletara bisitak
- LAGA Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak bultzatutako Kikilisalda proiektuan partehartzea.
- Jantoki kolektiboetan elikadura osasungarri eta iraunkorrerako trantsizio-prozesuetan bidelaguntza:

2024az geroztik, Lekunberriko Eguneke Zentroko sukaldea bertako produktuekin eta elikagai ekologikoeekin hornitzen da. Bestalde, 2025-26 ikasturtean, Betelu eta Leitzako eskoletako jantokiaren kudeaketa udalerriek beraiek hartu dute beren gain. Azkenik, hori ere Lekunberriko jubilatuen tabernan egiten ari da. Kasu hauetan, elikadura dinamizatzaileren lanak prozesu horietan bidelagun izatea da.

- Gaztainondoei buruzko jardunaldiak eta eta Izan Burujabe zikloa. Nolabait parte hartu da lurraldeko eragileek antolatutako jardunaldien antolaketan. Alde batetik, Gaztaina Azokan,

Azoka Ibiltariarekin koordinatuta. Bestetik, Leitzako Kontsumo Taldeak antolatzen duen "Izan burujabe" zikloaren baitan "Lurra landuz, lurra hobetu" izeneko mahai-ingurua antolatuta.

- Plazaola Partzuergo Turistikoarekin koordinatu, turismoari lotuta elikagai eta gastronomia lantzen den kasuetan.
- Komunikabideetan presentzia.

Ekoizpena bultzatzea: Elikagaien eta lehen sektorearekin lotutako diagnostikoa egin zenetik, eskualdeko erronka eta gabezia handienetako bat ekoizpena bera izan da, jorratzeko zailenetako bat. Horretarako, hainbat proiektu daude abian:

- HORTINOVA Kooperaziorako proiektu pilotua. INTIAk lideratzen du proiektua, Cedernarekin kolaborazioan.
- Ekoizpena babesteko edo sustatzeko aldizkako ekimenak: formakuntzak.
- Eskualdean martxan jartzeko baratze proiektu pilotuaren diseinua.

2.4 Merkataritza eta ostalaritza



[Herriko saltokiak dinaizatzeko zerbitzua](#)

Cederna Garalurren zerbitzu hau Kontsumo eta Merkataritza Departamentuaren eta Nafarroako 4 garapen agentzien arteko akordio bati esker ematen da. Cedernak bi merkataritza-teknikari lortu ditu lurralde osorako, eta Nafarroako Merkataritza Sarean parte hartzen dute.

Testuinguru horretan, Landa Merkataritza Dinamizatzeko 2024/2025 Zerbitzu Sarearen emaitzak bat datoz Aktibazio Planeari ezarritako helburuekin:

1. Helburua: Lehiakortasuna hobetzea

2. Helburua: Merkaturatzea bultzatzea

1. ardatza – Etengabeko behaketa eta analisia:

Mendialdeko saltokien datu-basea eguneratzeko lan egin da, eremu atlantikoko datu-basearen barruan. 2025ean 79 saltoki erregistratu ziren Mendialdeko lurraldean. Saltoki horiek landa-merkataritzari buruzko 2025eko Koiuntura Txostenaren inkestan parte har zezaten bultzatu da, eskualdekako analisi konparatua eta sektorearen bilakaeraren jarraipenean lagunduz. Mendialdea-Plazaolako Aktibazio Sozioekonomikorako Planaren bileretan informazio kualitatiboa biltzeko ere lan egin da, hurbileko merkataritzaren ikuspegia eskualdeko diagnostiko sozioekonomikoetan txertatuz.

2. ardatza – Lankidetzak eta harremanak Mendialdean:

Mendialdean bi merkataritza elkarte mixtoak daude: Kaxkabeltza Leitzan eta LM (Lekunberri Mugimenduan) Lekunberrin. Elkarte horiekin lan egiten ari da, eta sektoreko sustapenaren, kanpainen eta prestakuntza-beharren urteko estrategia zehazteko bileretan parte hartzen ari da. Plazaola Partzuergo Turistikoarekin ere koordinatu da, merkataritza- eta turismo-ekintzak lerrokatzeko.

Mendialdeko saltokiak gogoeta eta erabakitze-guneetan sartu dira, hala nola Aktibazio Planaren Behatokian, lurraldeko eragile publiko eta eragileekin batera. Saltoki horiek mugaz gaindiko topaketan parte hartu ahal izan dute Baionan, tokiko merkataritzari, digitalizazioari eta bezeroak erakartzeko formula berriei buruzko esperientziak partekatuz.



4. ardatza – Mendialdeko saltokien kudeaketa eta aholkularitza.

In situ bisitak eta banakako aholkularitza-prozesuak egin dira Mendialdeko saltokiekin, digitalizazioari, salmenta-puntuaren hobekuntzari eta belaunaldien arteko erreleboari lehentasuna emanez, eta horien jarraipena egin da ondoren bide telematikoaren bidez.

Bestalde, hainbat jardunalditan parte hartu da:

ANFAS eta Nafarroako Gobernuaren jardunaldia. "Merkataritza erraza, merkataritza irisgarria". Saltokietako irisgarritasuna ez dagokio merkataritza-lokalerako eraikuntza mailako sarbide fisikoari bakarrik, Nafarroan zailtasunen bat duen biztanleriaren % 40 ere hartzen baitu. Horrek erakusten du oso garrantzitsua dela pertsona horiek oso kontuan hartzea marketin-estrategiak planteatzeko garaian.

5. ardatza – Lehiakortasuna, profesionalizazioa eta ekintzailtza

Nafarroako mendialdeko tokiko produktuen eta merkataritzaren katalogoa sustatzen ari gara, Mendialdeko material espezifikoarekin ("Mendialdeko elikagaiak"), lurraldean banatuta eta deskargatzeko moduan (<https://www.cederna.eu/eus/2024/04/mendialdeko-elikagaiak/>).



Profesionalizazioaren helburuarekin, hainbat prestakuntza egin dira Leitzan (ostalaritzako eta salmentetako gaitasunak) eta Meta eta Google Business edukiak sortzeko prestakuntza-ibilbidean, non eskualdeko hainbat merkatarik parte hartu duten. Era berean, Emplea Fundazioak Mendialdean duen VIVID programaren jarraipena egin da, ekintzailtza, enplegarritasunera eta tokiko jarduera ekonomikoei balioa ematera bideratutako talde-dinamikekin.



Enpresa-egoerari buruzko diagnostikoa egin da. Guztira, 2025eko irailera arte 111 alta izan dira Cederna Garalur lurralde osoan, horietatik 17 Mendialdean.

Identifikatutako erretiroagatiko itxieratik gertu dauden saltokiek Nafarroako Gobernuaren Negozio Erreleborako Burtsaren zerbitzuaren informazioa jaso dute lehen eskutik, eta Merkataritza Ganberak balorazio ekonomikorako eskaintzen duen zerbitzuari buruzko informazioa ere bai. 15 saltokik eman dute alta Atlantikoko zonaldeko Negozioen Txandakako Burtsan, 2025eko abenduaren 1ean.

6. ardatza – Dinamizazioa eta baliabide estrategikoak ingurunean

Aranoko Ostatuaren kasuan bezala, espazio estrategikoak identifikatu dira etorkizuneko jarduera anitzeko negozio-proiektu baterako, ostalaritza eta inguruko herritarrentzako oinarritzako merkataritza-eskaintza uztartuko dituen, eta udalari laguntza teknikoa eskaini zaio. Aresorako proposamenaren jarraipena egitea helburu berarekin, mikrokooperatiba baten bidezko kudeaketa kolaboratibotik abiatuta.

Sarearen alderdi baloratuena merkatarientzako aholkularitza- eta laguntza-zerbitzua izan da. Merkatariek eskerrak eman dizkiote programa honi, batez ere prestakuntzei, digitalizazio-jardunaldiari eta laguntzak izapidetzeari dagokienez.

Mendialdeko merkataritzaren ikusgarritasuna indartzeko Instagram kanal sektorialaren eta Cederna Garalurren webguneko berrien bidez (adibidez, Mendialdeko ibilbide-orri sozioekonomikoaren onarpena 2028ra arte).

2.5 Turismo jasagarria

Turismoa funtsezko sektorea da Mendialdea eskualdean, neurri handi batean Plazaola Partzuergo Turistikoari esker, tokiko erakundeek eta inguruko enpresa turistikoek 1994an sortutako erakundeari esker. 2022an, partzuergoak hausnarketa estrategikoa egin zuen, Eskualdea Aktibatzeke Planean lerrokatuta eta sartuta. Beraz, turismoaren esparrua Partzuergoak kudeatzen du.



Baina, bestetik, Cederna Garalurrek bost Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Plan kudeatzen ditu, gure helmuga turistikoa jasangarritasunean oinarritutako eredu baterantz eraldatzeko eta digitalizazioa helmuga turistikoen kudeaketan txertatzeko, ekosistema turistikoen erronka berriei aurre egiteko eta despoblazio-prozesuak geldiarazteko.

Plan horiek esku-hartze integralak aurreikusten dituzte plan bakoitzaren xede diren eremuetan, bai eta proiektu zehatz eta estrategikoak gauzatzea ere. Plan horiek 2024-2026 bitartean gauzatuko dira eta NEXT funtsek finantzatzen dituzte.

Mendialdea Plazaola, Ultzamaldea eta Sakanako PSTDan sartuta dago.

Aktibazio Planean sartzen diren turismo-sektoreko lan-ildoak honako hauek dira:

1. **Helburua: Turismoa sustatzea**
2. **Helburua: Eskualdeko ikuspegia sustatzea**

Hala ere, memoria honetan bi erakundeek egindako jarduerak zehaztuko dira:

1. PSDT "Plazaola-Sakana-Ultzamaldea"

Helburua betetzeko, PSDT Plazaola, Ultzamaldea eta Sakanarekin lan egin da. Cederna Garalurrek bost Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Plan kudeatzen ditu gure helmuga turistikoa jasangarritasunean oinarritutako eredu baterantz eraldatzeko eta digitalizazioa helmuga turistikoen kudeaketan txertatzeko, ekosistema turistikoen erronka berriei aurre egiteko eta despoblazio-prozesuak geldiarazteko. Plan horiek esku-hartze integralak aurreikusten dituzte plan bakoitzaren xede diren eremuetan, bai eta proiektu zehatz eta estrategikoak gauzatzea ere.

Plan honen helburua da "Plazaola-Sakana-Ultzamaldea" turismo-helmuga jasangarria, irisgarria eta erreala izatea, turismoaren sektorea eraldatzen eta tokiko ekonomian duen pisua handitzen lagunduko duena, landa-gune txikietan enplegua sortzen eta zerbitzuak mantentzen lagunduz. Partaidetzazko kudeaketa-eredu bat ezartzea, erakunde publikoen, turismo-eragileen eta herritarren arteko lankidetzan oinarritua, baliabideen kudeaketa iraunkorra, beste jarduera batzuekiko bateragarritasuna eta tokiko nortasunarekiko errespetua ahalbidetuko dituena.

Jarduketan helburu nagusia azpiegiturak klima-aldaketaren eraginetara egokitzea da, batez ere uholdeen arriskuei eta ondorioei dagokienez, eta ekipamenduen eta azpiegituren eraginkortasun energetikoa sustatu nahi dute, baita zenbait turismo-puntutan irisgarritasuna ere.

EXEKUZIOA 2025/12/31			
	€ GUZTIRA	% AURREKONTUA	% EXEKUZIOA
HITZARMENAK	3.872.779,53 €	%77,46	%38,86
KONTRATUAK	927.220,47€	%18,54	%9,54
KUDEAKETA	200.000,00€	%4	%3,21
GUZTIRA	5.000.000,00 €	%100	%51,62



Exekutatzen ari diren proiektuak:

LAN-ILDOA	AKZIO ZENBAKIA	TOKIKO ERAKUNDEA	AKZIOA	AURREKONTU OSOAREKIKO %	KUDEAKETARAKO TRESNA	AKZIO BAKOITZEKO ZENBATEKOA
1	1.1	Larraun	Uitziko tunelean uholdeen inpaktua prebenitzeko eta zuzentzeko neurriak	11,56%	Hitzarmena	578.000,00 €
1	2.1	Basaburua	Basaburuko pasalekuko (Ihaben) atsedenekuaren ingurumena egokitzeko proiektua	1,94%	Hitzarmena	97.000,00 €
1	2.2	Larraun	Iribasen Larraun ibaiaren iturburuko harrera-gunea gaitu.	1,30%	Hitzarmena	65.000,00 €
2	3.2.1	Imotz	Instalazio fotovoltaikoa	0,70%	Hitzarmena	35.000,00 €
2	3.2.2	Imotz	Latasan energia-eraginkortasuna hobetzeko neurriak	0,43%	Hitzarmena	21.295,38 €
2	3.2.3	Imotz	Ibilgailu elektrikoak kargatzeko bi puntu instalatzea Latasan	0,30%	Hitzarmena	15.000,00 €
2	4.1.2	Imotz	Latasan txirrindularientzako zerbitzu-puntu bat instalatzea	0,77%	Hitzarmena	38.344,46 €
2	4.2.1	Cederna	Eskualdeko natura-bidezidorren sarea Plazaola inguruan	1,90%	Kontratua	95.187,96 €
2	4.4	Lekunberri	Plazaolako bide berdean bide-zatia garatzea eta seinaleak berritzea irisgarritasun-irizpideekin	3,00%	Hitzarmena	150.000,00 €
2	4.6	Lekunberri	Lekunberriko Turismo Bulegoko bagoiaren berrikuntza energetikoa	0,66%	Hitzarmena	33.017,51 €
3	5.1	Cederna	Marketin digitaleko plan bat eta helmuga sustatzeko tresnak egitea eta gauzatzea	6,05%	Kontratua	302.473,62 €
3	5.2.1	Cederna	Nafarroako gazteluen Ibilbidearen berreraikuntza digitala	1,12%	Kontratua	56.000,62 €
3	5.2.2	Cederna	Ibilbideak eta bidezidorrak digitalizatu	1,27%	Kontratua	63.560,01 €
3	5.3	Cederna	Turismo-baliabideen ikus-entzunezko animazio artistikoa	2,20%	Kontratua	110.000,00 €
3	6.2.1	Larraun	Sentsorizazio bioklimatikoa eta radonekoa Mendukilo kobazuloan	0,64%	Hitzarmena	32.000,00 €
3	6.2.2	Cederna	Kontagailu adimendunak bizikletentzako azpiegituretan	0,60%	Kontratua	30.000,00 €
4	7.1	Cederna	Turismo-produktu berriak garatu eta sustatu. Horiek abian jartzeko sentsibilizazioa eta mentorizazioa	1,54%	Kontratua	76.950,00 €
4	7.2.1	Leitza	Leitzako garai bateko geltokia gaitu	17,89%	Hitzarmena	894.263,70 €
4	7.3	Larraun	Mendukilo kobazuloko harrera-gunea museo bihurtu	0,60%	Hitzarmena	30.000,00 €
4	7.4	Basaburua	Produktu turistiko berria: Basaburua "Bosque Benéfico - Baso Babeslea"	1,12%	Hitzarmena	56.059,16 €

4	7.5	Cederna	Bisitariei harrera egiteko zentroa garatzea	2,00%	Kontratua	100.000,00 €
4	7.7	Basaburua	2. fasea : Basaburua Bosque Benéfico - Baso Babeslea	1,35%	Hitzarmena	67.460,65 €
4	7.8	Larraun	Mendukiloko kobazulo turistikoak bisitariak hartzeko eraikina egokitzea	3,92%	Hitzarmena	196.000,00 €
4	8.1	Cederna	Helmugaren irisgarritasun-plana: egoeraren diagnostikoa, sentsibilizazioa, prestakuntza eta ekintza-plana	1,86%	Kontratua	93.048,26 €
4	9.1	Kudeaketa	Helmugaren talde kudeatzailea	2,86%	Kontratua	142.904,94 €
4	9.2	Kudeaketa	Kudeaketarako berariazko laguntza teknikoa	1,14%	Kontratua	57.095,06 €

2. Plazaola Partzuergo Turistikoa



Plazaola Partzuergo Turistikoak, turismoa dinamizatu eta kudeatzen du (<https://plazaola.eus/>). Tokiko baliabide natural eta kulturaletan oinarrituta hainbat ekintza burutu dira turismo jasangarria, irisgarria eta erakargarria bultzatzeko helburuarekin.

Eskualde mailan lanean aritu da, batetik, eskualde turismoa bultzatuz eta bestetik, eskualdeko ikuspegia sustatuz.

Eskualde turismoa bultzatze aldera, honako lanketa egin da:

- **Zikloturismo produktua** egituratu: Zikloturismoa lantzeko lan taldea sortu da eta Nafarroako Zikloturismo Produktu kluban sartu da. Bide Berdeen obrak gauzatu dira (PSTD eta Red Explora diru-laguntzekin) eta Ziklotur Plazaola jardunaldiak antolatu dira (maiatzan).
- **Turismo gastronomikoko produktua** garatu: Enogastronomia lan taldea sortu da. Ekoizleak ikustarazteko hainbat ekitaldi eta jardunaldi antolatu dira: Emakume Artzainen eguna, Talo eguna, Nekazari azoka... Horrez gain, Mendialdeko Azoka Ibiltariaren komunikazioaren, artisauen koordinazioaren eta promozioaren inguruko lanketa egin da.
- **Turismoa erakartzeko jarduerak**: Bide Berdeen Eguna, Antzinako azoka... Ekitaldi gehienetan irisgarritasun eta jasangarritasun planak egin dira. Horrez gain, Red Explora/Nafarroa Ezagutu laguntzarekin bisita gidatuak eta tailerrak egin dira Aralarren eta Lekunberrin.




Ziklotureko kartelak

- **Promozio eta komunikazio lanak:** Publizitaterako edukiak (kanpainak sare sozialetan) eta promozioak landu dira (komunikabideak, prentsa oharrak, sare sozialak dinamizatu, webgunea eguneratu eta ferietara joan: intur, Valladolid; Fitur, Madrid; Navartur, Iruña; B-Travel, Barcelona eta UTRECHT, Zaragoza).
- **Turismo bulegoa kudeaketa:** 2025an 11.662 bisitari egon dira, 2024ekin konparatuz %11 gutxiago. Geltokia ixteak eragina izan zuen, tokiz aldatu zen bulegoa Larraungo udalera. Atzeritarrei dagokionez, aurtengoan 195 gehiago izan dira.
- **POSTD proiektuetan koordinazio lanak eta jarraipena:** Udalek dauzkaten egitasmoetan eta Cedernarekin bileretan parte hartu eta hornitzaileekin lanak koordinatu.

Eskualde ikuspegia sustatze aldera, honako jarduerak burutu dira:

- **Sareko lana sustatu:** Plazaolako Bide Berdearen inguruko mahia bildu da 30. urteurrena ospatuz. Horrez gain, beste eskualdekin topaketak eta harremanak egin dira (Extremadurako Las Gatas eta Las Hurdes zonaldearekin), baita jardunaldi teknikoetan parte-hartu.
- **Turismorako zerbitzuak sendotu:** Partzuergoko kideen arteko ahalduntze saioa, Kide Topaketa (azaroan burutua).
- **Formakuntza sustatu:** batez ere kideen artean, Turismo zuzendaritzatik egiten diren ikastaroak eta Cederna eta Mimukaiek antolatutakoak, astero zabaltzen den boletinean publikatu dira.
- **Kideekin sentsibilizazioa:** asteroko komunikazioa *newsletter*-an bitartez, 72 Boletin eta Agenda banatu dira zonaldeko berri eta ekitaldiekin.
- **Ingurumena kontserbatzeko jardunbideak sustatu:** PLAZAOLA EZAGUTU programa sortu zan. Laguntzak lortu ziren Red Explora sarea bitartez eta udalekin batera (Araitz, Goizueta, Larraun, Lekunberri) finantziatu zen. Bertako enpresek ere parte hartu zuten (AIZTI, ED+, Ekino Aukerak, Mendukilo).
- Mendukilo, 20. Urteurrena: Komunikazioan lagundu, bideragarritasun plana aztertu, koordinazioa estutu eta Bekarioa partekatu zen.

3. Mimukai proiektua



<https://mimukai.eus>

Mimukai proiektua Aktibazio Plana hasi aurretik hasi zen definitzen, eta eskualdeko garapen ekonomikorako funtsezko tresna bihurtu da. Mimukai proiektu bizia da, eta, hautematen diren beharretatik abiatuta, egokitzen doa irtenbide egokiak eskaintzeko. Epe ertain eta luzerako proiektua da, eskualdeko ikuspegia duena eta planaren lan-esparru guztiak biltzen dituen.

Mimukai proiektuaren helburu nagusia Mendialdearen garapen sozioekonomiko adimentsua eta

jasangarria bultzatzea da. Lan-arlo bakoitzarekin lotutako helburu espezifikoak honako hauek dira:

- Mendialdean lan eta ekintzailatza-ekosistema indartzea, inklusioa, berrikuntza eta tokiko garapen ekonomikoa bultzatzen dituen zentro finkatu, aktibo eta irisgarri baten bidez.
- Mendialdeko ekoizpen-sarea indartzea, lurraldeko eragile sozioekonomikoen arteko lankidetzaz, ikaskuntza eta garapen sare aktibo baten bidez.
- Mendialdeko tokiko enpresen eta pertsona ekintzaileen lehiakortasuna eta langileen enplegarritasuna bultzatzea.
- Mendialdea eskualdean enplegu-zerbitzuak hobetzea eta zabaltzea erraztea
- Ekintzailatza
- Sortzea

2025ean, Industria, Trantsizio Ekologiko eta Enpresariala Sailaren 2025 eta 2026 urteetarako Ekonomia Aktibatze Planen deialdian aurkeztu eta dirulaguntza eman da. Mimukai proiektu hau oso proiektu konplexua da, 6 lan-arlo ditu, lan-ildoak edo azpiproiektuak barne, eta 2 proiektu pilotu ere baditu.

MIMUKAI SAREA

Mendialdea Aktibatze Planaren diagnostikoak sarea osatzeko beharra agerian utzi zuen. Eskualdeko enpresen artean ezagutza lantzeko beharra ikusi zen, baita herritarrenganako hurbiltasuna ere.

Bestalde, eskualdeko enpresa-ehunaren eta tokiko erakunde publikoen artean sinergiak sortzeko beharra identifikatu zen. Mimukaik honako erronka hauek hartzen ditu bere gain, eta elkar ezagutzeko eta lankidetzan aritzeko bideak eraikitzen ditu:

- **Enpresen datu-basea:** Enpresa guztietako enpresen datu-basea eguneratzea.
- **Merkatarien elkarteak** - Kaxkabeltza eta Lekunberri Mugimenduan: Merkatarien topaketak eta ekitaldi bateratuak egin dira.
- **Zaintza Sarea:** Eskualdeko zaintzaren arloan diharduten eragile publiko eta pribatuekin hitzaldi dinamikoak egin dira, zaintzaren sektoreko eragileekin harremanak sortzeko.

MIMUKAI ZENTROA

Mimukai zentroa martxan jarri da, espazio bera beharrezko erabilerarako egokituz. Coworking-gunea, bulego itxiak, bilera-gelak, prestakuntza-gela, sukaldea, atsedenera...

Erabilera dinamizatua ere martxan jarri da, erabiltzaile mota desberdinak sartzeko baldintzak, tarifak eta erabiltzaile mota bakoitzera egokitutako aldebiko kontratuak definituz.

2025ean Mimukai Zentroa izan den erabilera:

ZERBITZUA	ERABILTZAILEAK
Bulegoen alokairua	2
Coworking	Finkoak: 4
	Eguneko erabiltzaileak: 3
Elkartek	Leitzeko EBK
	Kaxkabeltz
	Zaindu Leitzalde
Formakuntza/bilera gelaren alokairua	7
Espazioaren erabilera Mimukai erabiltzailek	29
Mimukaiek antolatutako ekintzak	Amazabal. Ekintzailatza 1º pertsonan.
	Atana. Enpresei zuzendutako digitalizazio jardunaldia
	Kalaxka hiltegiaren inguruko saio informatiboa. Abeltzainak.
	Zaintza sarearen topaketak (entitateak).
	Zaintza. Lanbide-ziurtagiriaren inguruko informazio bilera.
	Zaintza. Prestakuntza-ibilbideari buruzko informazio bilera
	Mimukai. Gabonetako gosaria

MIMUKAI EKINTZAILATZA

Cederna Garalur eta Narfar Lansarea elkarlanean ari dira kultura ekintzaileen sustapenean, proiektuen aholkularitzan, prestakuntzan edo jardunaldian. Zerbitzu hori garapen-agentek ematen du, eta hurrengo atalean azaltzen da. Mimukai proiektuan zerbitzu hori sartzen da, baina haratago doa zonaldean hautemandako problematika batean eragitean, erreleboa behar duten negozioei berariaz nola lagundu aztertu behar baita. Horretarako, negozio-erreleborako proiektu pilotu bat diseinatu da, 2026an zehar gauzatuko dena.

MIMUKAI FORMAKUNTZA

Enplegurako prestakuntza-beharrak aztertzea eta mendian bertan behar den prestakuntza eskaintzea da helburua. 2025ean honako ikastaro edo jardunaldi hauek egin dira Lekunberri eta Leitza artean:

Mimukai Zentroan ikastaroak (Leitza)

Eremua	Ikastaroa	Datak	Ordu kopurua	Betaratutakoak (totala, G-gizonak/E-emakumeak)
Digitalizazio formakuntza Ekaina	Mugikoer erabilera	06/2-6	10 ordu	6 pertsona (3G 3E)
	Banca on line	06/2-6/	10 ordu	Bertan behera
	Canva	2-13/06	20 ordu	7 (2G/5E)
	Oinarrizko ezagutza digitalak	2-13/06	20 ordu	6 (6E)
	Mugikoer erabilera	10/6-10	10 ordu	6 pertsona (3G, 3E)

Digitalizazio formakuntza Urria	Banca on line	10/6-10	10 ordu	10 personas (5G,5E)
	Inteligencia Artificial	10/6-17	20 ordu	Bertan behera
	Excela	10/6-17	20 ordu	Bertan behera
Merkataritza eta Ostalaritza	Alérgenos y Manipulación alimentos	06/16-19	12 ordu	Bertan behera
	Ventas y fidelización clientes	06/16-20 eta 26	18 ordu	Bertan behera
Marketinga enpresentzat	Creación de contenido Meta Bussiness	16,17,18/09, 9/10	8 ordu	14 pertsona (2G, 12 E)
	Creación contenido. Apoyo	15/10	2 ordu	4 pertsona (2G, 2E)
Zaintza arloan formakuntza	Mendekotasuna eta/edo desgaitasuna duen pertsonen arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan.	7/01-31/05	370 ordu	2 talde 34 pertsona (3G, 31E)
	Pertsonengan Oinarritutako Arreta	11/8, 5 eta 22	22 ordu	14 pertsona (14E)

Plazaolan egindako kurtsoak (Lekunberri)

Formación digitalización	Mugikoer erabilera	10/20-24	10 ordu	8 pertsona (3G, 5E)
	Banca on line	10/20-24	10 ordu	6 pertsona (6G, 3E)
	Canva	10/20-24	20 ordu	7 pertsona (2G, 5E)
	Excela	10/20-24	20 ordu	Bertan behera

Gainera, Amazabal Institutuarekin modu berezian lan egiten dugu, eskualdeko bigarren hezkuntzako ikastetxe bakarra baita ia udalerrri guztietako ikasleak joaten direna. Helburua tokiko enplegua eta ekintza sustatzea eta talentuari eustea da. Hirugarren ikasturte honetan institutuarekin lan egiten da, ekonomiako irakasgaiekin. 2024-2025 ikasturtean, irakaslearekin lankidetzan diseinatutako eta ikasturte bakoitzera egokitutako jardura hauek gauzatu dira:

- Ekintzailatza. "Lehen pertsonako ekintzailatza" tailerrak. Ekintzaileen esperientziak erakustea, elkarriketa moduko formatuan. DBHko 4. mailako ikasleekin
- Mendialdea Ekonomia Aktibatzeke Plana. 2 saio. Eskualdeko sektore estrategikoen lan-esparruak lekualdatzea. 1. Batxilergoa.
- Gizarte-ekonomia
- Lan-orientazioa. Lana bilatzeari buruzko "sape room" -a. SNE.
- Ikasleen proiektuak aurkeztea Mimukain. Ikasleak Mimukairengana joan ziren beren lanak aurkeztera.

MIMUKAI ENPLEGUA

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren zonifikazioan, Mendialdea eskualdea bi eremutan banatzen da. Doneztebeko bulegotik Leitza, Areso, Arano eta Goizueta herriak artatzen dira, eta gainerakoak

Iturrondoko bulegotik (Iruñea). Horregatik, bi bulegoen arteko koordinazio-lana erronka garrantzitsua da Mendialdean enplegua sustatzen modu batera edo bestera lan egiten duten eskualdeko gainerako eragileekin.

Ilido horretan, EESk 2 jarduera jarri ditu abian Ilundain-Harizberri Fundazioaren bitartez:

- Lan-orientazioko zerbitzua. Leitza (Mimukai) eta Lekunberri (Udaletxea)
- Enpresen prospekzioa. Enpresak bisitatzea, haien premiak eta zerbitzuak, programak edo enpresentzako dirulaguntzak jasotzeko

MIMUKAI SORKUNTZA

Tokiko biztanleriaren gabeziak edo beharrak detektatzea eta herrietan lan egiteko eta bizitzeko aukerak sortzea da helburua. Nola? Gizarte-beharrak eta ekimenak oinarri hartuta, eskualdean enplegua sortuz eta enpresa-ekimen berriak abian jartzeko lan eginez. Mimukai proiektuak bat egiten du Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen filosofiarekin: tokiko egoera kontuan hartu eta errentagarritasun ekonomikora bideratutako irtenbideak aurkitu beharrean, lurraldeari eta pertsonei lotutako enpresa-eredu berriak sortzea bilatzen du.

2024an eskualdeko beharrak identifikatzeko egindako lanaren ondoren, aurten zainketetan enplegua sortzeko proiektu pilotu bat jarri da abian, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin eta Zaindu Leitzaldearekin lankidetzan. ELZri (Etxeko Arreta Zerbitzua) laguntzeko eredu berri bat landu da, asteburuetara zabaltzeko. Une honetan 3 lanpostu sortu dira.

KOMUNIKAZIOA

Web-orri berria eguneratzen lan egin da, Mimukai proiektua eta Eskualdea Aktibatzeke Plana barne. Komunikazioa ere landu da Facebook eta Instagram sare sozialetan, Whatsappeko kanaletan. Eta offline komunikazioa.

Eskualdeko biztanle guztiengana iristeko asmoz, hainbat lankidetzat egin dira Tokiko Komunikabideekin. Guztira 26 kolaborazio egin dira, bai irratietan egindako elkarrizketak, bai tokiko aldizkarietan idatzitako artikulak, honako gai hauekin:

Karrape Irratia	Merkataritza. Enpresa eta elkarreentzako aholkularitza
	Elikadura. PAC.
	“Mimukaien ikasi” kanpaina
	Lan orientazioa eta formakuntza zerbitzua
	Teknologia berrien ikastaroak Mimukai Leitza
	Ekintzaileei harreta eta formakuntza
	Negozio-erreleboa
	Teknologia berrien ikastaroa
Esan-Erran Irratia	RuralNAV proiektua
	Merkataritza. Enpresa eta elkarreentzako aholkularitza
	Elikadura. PAC.

	Turismoa PSDT.
	"Mimukaien ikasi" kanpaina
	Azoka ibiltariak
	CT Plazaola
	Lan orientazio zerbitzua
Aralar Irratia	Teknologia berrien ikastaroa
	RuralNAV proiektua
Mailope	Ekintzailtza. Navarraemprende.
	Turismoa PSDT.
	RuralNAV proiektua
Ttipi-Ttapa	Turismoa PSDT.
	Ekintzailtza eta teknologia berrien ikastaroa Mimukai Leitz
	Ekintzailtza. Navarraemprende.
	Turismoa PSDT.
	RuralNAV proiektua

3 irratiek eta Ttipi ttapak finantziamentua jaso dute RuralNav proiektuaren difusioagatik.

3.1 Garapen agentzia

Ekintzailtza - BANAKAKO HARRETA

Ekintzaileak: guztira 155 pertsonari eman zaie arreta eta artatutakoen jardura ekonomiko nagusiak ondorengoak izan dira: jardura turistikoak (7, horietako 5 ostatu turistikoak), lehen sektorea eta eraldatzaileak (2), ostalaritza (7), merkataritza (2) eta beste sektore batzuetakoak (27) izan dira.

Ekintzaileei arreta:

	Arrerak	Artatutako pertsonak		Alta Gizarte Segurantzari		Sortutako enpresak
		Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	
1. hiruhilekoa	69	26	20	2	3	17
2. hiruhilekoa	30			6	1	
3. hiruhilekoa	21			4	1	
4. hiruhilekoa	35			2	1	
TOTAL	155			14	6	

Enpresak: Martxan dauden enpresak artatu dira, horietatik 12k bi urte baino gehiago dituzte eta 22k bi urte baino gutxiago.

	Autonomoak		SL	Koop.	Kontsorzioa	SI	GUZTIRA
	Emakumeak	Gizonak					
2025	17	8	3	3	1	2	34

EKINTZAILTZA – FORMAKUNTZA

Fiskalitateari eta fakturei buruzko tutorialak (Cederna): Urtean zehar 3 saio egin dira eta Mendialdea eskualdeko 9 ekintzailek hartu dute parte.

UDALEI ZERBITZUA ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

Udalekin landutako proiektuak:

- Arano. Kontzejupe Ostatuaren erreleboa
- Areso. Merkataritza-ostalaritza proiektua
- Basaburua. Adinekoen etxeko prozesuan laguntzea.
- Betelu. 1) Eskolan aerotermia-instalazioa (LGP) 2) Adinekoen egoitza lekuz aldatzen laguntzea.
- Goizueta. 1) Zubimuxu aterpetxea eta 2) VIVID Herriak proiektura aurkezteko laguntza 3) Belaunaldien arteko erreleboen lanketan hastea.
- Imotz: Biltegia kudeatzeko hautaketa-prozesuan parte hartzea.
- Leitza. Nagusien biltokiko proiektua (LGP)

Proiektu estrategikoak: Alkateen Ituna (koordinazio-bileretan eta eskualdeko ekintzen justifikazioan lagundu), NELS Sarea (Agenda 21 dirulaguntzen deialdia), bilerak udalekin eta Berdintasun Plana Ultzamaldeko gizarte-zerbitzuen mankomunitatearekin. Turismoa Plazaolarekin elkarlanean landu da.

LANDA GARAPENERAKO PROGRAMA (LGP-PDR)

LGP deialdia: 11 proiektu baloratu eta 3 aurkeztu dira: 2 proiektu publiko (Betelun eta Leitza) eta 1 pribatua (Imotzen).

Ruralnav: Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuak finantzatua eta Nafarroako Toki Garapenerako 4 Agentzien artean garatua. Landa eremuetan despopulazioa geldiarazten lagunduko duten ekintza berritzaileak abian jartzeko helburua du eta Despopulazioaren aurkako Nafarroako Estrategiaren ildoarekin bat egiten du.

2025eko lan-ildoak	Gauzatutako ekintzak
Herrietara iristen diren biztanle berriak	✓ Landa-ingurunera iristen den biztanleria berriari buruzko azterketa bateratua. ✓ Biztanleria berriari buruzko eztabaida-jardunaldia. ✓ Zaintzen ekonomia lotutako negozio-eredu berriei buruzko azterlana. ✓ Nafarroako Mendialdeko biztanle berrientzako harrera-zerbitzuen direktorioa.
Herritarrei zuzendutako zaintza-zerbitzuak	✓ Mendialdeko zaintza-ekosistemari buruzko ikerketa.

HERRI GOGOTSUAK HERRI BIZIAK (2024-2025)

Nafarroako Gobernu Landa Garapenerako Departamentuaren eta Nafarroako Toki Garapenerako 4 Agentzien (<https://ruralmood.com>) arteko hitzarmenetik sortutako proiektua da. Helburu hauek ditu: batetik, landa-ingurunearen irudi errealista eta modernoa jendeari hurbiltzea herrietako gazteen ikuspegitik, eta, bestetik, Tokiko Garapen Agentziek landa-lurraldeen dinamizazioan duten funtsezko

zeregina

nabarmentzea.

Belaunaldien arteko 3 jarduera parte-hartzaile egin dira Goizueta, Lekunberri eta Doneztebeko eskoletan, "RuralFest" jaialdia Altsasun eta "Rural Mood" kanpaina.

ETXEBIZITZA

Etxebizitza Sailak hitzarmen bat sinatu zuen Cederna Garalurrekin etxebizitzari buruzko azterlan bat egiteko. Proiektuak 2026an jarraituko du.

Lan-ildoak	Gauzatutako ekintzak
1. "Nafarroako Mendialdeko Etxebizitza Mahaia" sortzea	Mendialdea eskualdeko 9 ordezkari osatu dute mahaia.
2. Etxebizitzaren diagnostiko integrala	Sakanako etxebizitzaren diagnostikoa hasi da.
3. Komunikazio kanpaina	- Landa-eremuetako etxebizitzari buruzko 10 jardunbide egokien katalogoa argitaratu da. - Emaitzak aurkezteko jardunaldi bat antolatu da.

LANDA ADIMENA (2024-2025)



Cederna Garalur elkarteak eta Nafarroako Erdialdeko eta EDER partzuergoek parte hartzen duten 2014-2020 LGP lankidetzaren proiektuen barruan dago. Proiektua 2025ean amaitu da. Landa-lurraldeak ahalduentzea du helburu, herritarrei ahotsa emanez landa-ingurunearen erronkak eta aukerak aldarrikatzeko, eta landa-inguruneari buruzko kontakizun berri bat garatzea, herrietako bizimoduaren ikuspegi eguneratua eta errealista erakutsiz, estereotipoetatik urrun.

2025ean egin diren ekintzak honako hauek dira: Nafarroako Mendialderako partaidetza-prozesuen metodologia bat garatzea, etxebizitzari eta landa-agendari buruzko foroak, lan-bisitak, Nafarroako Mendiari buruzko 100 argazkiko irudi-bankua sortu da, kultura-ziklo bat egin da, partaidetza-tailerrak egin dira eta proiektuetarako 2 logo sortu dira, Europako Landa Itunari buruzko ekitaldia, jardunaldi tekno-ludikoak eta komunikazioa.

AUKEREN LURRALDEA (EKINTZAILTZA)

CaixaBanken finantzatutako proiektua da, eta 4 garapen-agentziek babesten dute, landa-ingurunean negozio berriak sor daitezen sustatzeko eta dagoen enpresa-sarea indartzeko. Cedernaren ekarpena:

- Proiektua hedatzeko kanpainan lagundu du.
- Hautagaitzak aurkezten lagundu du. Eskualdean: Larraungo eta Basaburuko proiektuak.
- 4 enpresa hautatu dira.

- "Eraiki zure presentzia digitala" tailerra antolatu da 14 parte-hartzailerekin.

Nafarroan estatu mailako 4 proiektuk parte hartu dute. Horien artean izan da Basaburuko ekintzailea, markesina positiboen proiektuarekin.

EUSKERA

Cederna Garalurreko Euskara Zerbitzua Euskarabideak eta Tokiko Garapen Agentziek sinatutako hitzarmenaren barruan kokatzen da. Hitzarmen honen helburua da euskararen presentzia indartzea, bai erakundeen barne-funtzionamenduan, bai Nafarroako landa-udalerrietan, batez ere ezarpen txikiena dutenetan.

2025eko emaitza nagusiak:

- Euskara-teknikari bat kontratatzea
- Cederna Garalur Elkartearen Euskara Plana prestatzen hasi da.
- 12 bilera antolatu dira lurraldeko eragileekin.
- 4 hedapen-jarduera antolatu dira, eta 575 pertsonak parte hartu dute.

NAFARROAKO MENDIALDEKO ONDARE KULTURAL MIGRATUA

Cederna Garalur elkartearen berezko proiektua da, 2023-2027 LGPK finantzatua. Proiektu honen helburua da Nafarroako Mendialdean desagertutako ondare kulturalaren memoria berreskuratzea, jatorrizko kokalekuan ez dagoen edo lurraldean bertan gozatu ezin den gure bailaretako ondare kultural eta historikoari balioa emateko. Aurkezpen saio bat egin zen Larraunen.

3.2 Lan-taldea

Cederna Garalurreko Mendialdeko lantaldea



Elena Irigoien

Koordinatzailea
mimukai@mimukai
674 024 823



Lide Huici

Mimukai Zentroa
mimukai-komunikazioa@cederna.es
697 655 664



Marta Barba

Elikadura
mendialdea-elikadura@cederna.es
607 515 584



Ainhua Oribe

Ekintzailetza
mendialdea@cederna.es
617 609 328



Andoni Martín

Merkataritza
andonimartin@cederna.es
624 178 953



Irati Lure

Turismo Plana (JTLF)
ilure@cederna.es
646 676 132



Maitena Ezkutari


Plazaola Partzuergo Turistikoa
plazaola@plazaola.org
948 507 205
plazaola.eus




Cederna Antsoain

Zerbitzu orokorrak
info@cederna.es
948 206 697
cederna.eu/eus/


4. Anexoa




4.1 Aritz




4.2 Arano





4.3 Areso





4.4 Basaburua




4.5 Betelu





4.6 Goizueta




4.7 Imotz



4.8 Larraun



4.9 Leitza



4.10 Lekunberri

